Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Estatutua (1979)

1978ko abenduan, Gernikan, Euskal Kontseilu Orokorreko parlamentariek euskal autonomia proiektua aurkeztu zuten (hortik dator "Gernikako Estatutu" izena). Dena dela, Gernikako proiektu hark aldaketa batzuk jaso zituen onartua izan aurretik: 1978-1979 urteen artean Madrilen birnegoziatu zen eta hola, Espainiako Gorteek berretsi ondoren, 1979 urte amaieran, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herritarrek erreferendumean onartu zuten, ondoren lege organiko bihurtzeko. Testu hau izan da bi hamarkada baino gehiagotan hiru probintzietako autogobernua arautu duen legea.

Atariko Titulua

1. artikulua

Euskal Herria, bere naziotasunaren adierazgarri, eta bere autogobernua iristeko, espainol Estatuaren barruan Autonomia Erkidego gisa eratzen da. Beronen izena Euskadi zein Euskal Herria izango da; eta Konstituzioan eta Estatutu honetan adierazten direnak izango ditu oinarrizko instituzio-arautzat.

2. artikulua

1. Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak eta era berean Nafarroak ere, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren partaide izateko eskubidea dute.
2. Euskadiko Autonomia Erkidegoaren lurraldea Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa Herrialde Historikoez osatuko da, hauek egungo probintzien mugetan hartzen direlarik; bai Nafarroakoarenaz ere baldin eta azkeneko horrek Konstituzioaren 4. xedapen iragankorrean erabakitzen den prozeduraren arabera partaide izatea erabakitzen badu.

3. artikulua

Euskadi osatzen duten Herrialde Historikoetako bakoitzak, beti ere berorren baitan, autogobernuko bere antolaketa eta instituzio propioak gorde ditzake edota, bestela, berrezar eta egunera.

4. artikulua

Eusko Legebiltzarrak emango duen legearen bitartez eta Autonomia Erkidegoaren lurraldearen barruan egingo da Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Erakunde komunen egoitzaren hautaketa.

5. artikulua

1. Euskadiren ezaugarria ikurrin gurutze bikoa da: hondo gorrian zeharkako gurutze berdea eta gainean gurutze zuria dituena.
2. Orobat onartzen dira Autonomia Erkidegoaren barruko Herrialde Historikoetako bandera eta ezaugarriak.

6. artikulua

1. Euskarak, Euskal Herriaren hizkuntza propioa denez, hizkuntza ofizialaren maila izango du Euskadin gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.
2. Autonomia Erkidegoko erakunde komunek Euskadiko egoera soziolinguistikoaren ñabardurak kontuan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, beroien ofizialtasuna erregulatuz, eta beroien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte. [...]

7. artikulua

1. Estatutu honetaz baliatu ahal izateko, ondoko hauek izango dute euskaldunen kondizio politikoa: Estatuko lege orokorren arabera, Autonomia Erkidegoaren lurraldeko edozein udaletan egoitza administratiboa duten guztiek. [...]

9. artikulua

1. Euskadiko herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharrak Konstituzioan finkaturik dauden berberak dira. [...]

I. Titulua
(Euskadiri dagozkion eskumenak)

10. artikulua

Euskadiko Autonomia Erkidegoak ondoko gaiei dagokienean eskumen esklusiboa du:

1. Udal barrutien mugaketak [...]
2. Autogobernatzeko erakundeen antolamendu, erregimen eta funtzionamendua [...]
3. Eusko Legebiltzarra, Batzar Nagusiak eta Foru Aldundiekin zerikusirik duten hauteskundeetarako barne-legegintza [...]
5. Euskadi osatzen duten Herrialde Historikoen Zuzenbide Zibil Foral eta berezi –idatzia nahiz usadiozkoaren- kontserbazio, aldatze eta garapena, bai eta beraren indarraren lurralde-barrutiaren finkapena ere. [...]
8. Mendi-basoak, oihan erabilera eta zerbitzuak, abelbideak eta bazka-larreak, Konstituzioaren 149.1.23. artikuluari kalterik egiteke.
9. Nekazaritza eta abelazkuntza ekonomiaren antolaketa orokorraren arabera.
10. Barne-uretako arrantza [...]
12. Laguntza soziala. [...]
16. Zientzien eta tekniken ikerketa, Estatuarekin koordinatuki.
17. Kultura, Konstituzioaren 149.2. artikuluan erabakiari kalterik egiteke. [...]
19. Kultur, historia, arte, monumentu, arkeologi eta zientzia ondareak [...]
20. Artxiboak, Bibliotekak eta Museoak, Estatuak beroien titularitatea ez duenean.
21. Nekazari- eta Jabego-Ganbarak, Arrantzaleen Kofradiak [...]
24. Euskadiko sektore publiko propioa [...]
25. Ekonomiaren sustapena eta aurrerabidea eta Euskadiko ekintza ekonomikoaren plangintza, ekonomiaren antolaketa orokorraren arabera. [...]
31. Lurralde, kosta, hirigintza eta etxebizitzen antolaketa.
35. Kasino, joko eta apustuak [...]
36. Turismoa eta Kirolak. Aisia eta Atsedena.
37. Euskadiko Estatistika, beraren helburu eta eskuduntzetarako.

38. Ikuskizunak.
39. Komunitatearen aurrerabidea. Emakume kondizioa. Haur, gazte eta hirugarren adinekoen aldeko politika. [...]

16. artikulua

Konstituzioaren lehen Xedapen Gehigarrian erabakitzen dena aplikatzeko, irakaskuntza, zabalera, maila, gradu, era eta espezialitate guztietan, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren eskumenpean dago, Konstituzioaren 27.artikulua[k] [...] Estatuari ematen dizkion ahalmenei eta hori guztia betetzeko eta bermatzeko behar den goi inspekzioari kalterik egiteke.

17. artikulua

1. Konstituzioaren lehen Xedapen Gehigarrian aurreikusten denez, erregimen forala gaurkotzeko prozesuaren bitartez, Euskadiko erakundeei [...] dagokie, pertsonak eta ondasunak babesteko eta lurralde autonomoaren barruan Ordenu Publikoa gordetzeko Polizia Autonomoaren erregimena; Estatuaren Segurtasun-Indarren eta Gorputzen eskuetan, erkidegoz kanpotik edo gainetik gertatuko diren polizi-zerbitzuak geratzen direlarik, hala nola, portuak, aireportuak, kostak, mugak eta aduanak zaintzea [...]
2. Euskal Polizia autonomoaren Aginte Gorena Eusko Jaurlaritzari dagokio [...]

18. artikulua

1. Euskadiri dagokio Estatuko oinarrizko legedia garatzea eta betetzea barneko Osasun alorrean.
2. Seguritate Sozial alorrean Euskadiri dagokio:
   a) Estatuko oinarrizko legedia garatzea eta betetzea [...]
   b) Segurtasun Sozialaren erregimen ekonomikoaren kudeaketa.

II. Titulua
(Euskadiko Botereez)

24. artikulua

1. Euskadiko botereak Legebiltzarra, Jaurlaritza eta bere Lehendakariaren bidez mamituko dira.
2. Herrialde Historikoek beren erakunde foralak kontserbatu eta antolatuko dituzte Estatutu honen 3. artikuluan erabakitzen denaren arabera

Lehen Kapitulua
(Eusko Legebiltzarraz)

25. artikulua

1. Eusko Legebiltzarrak ahalmen legislatiboa du, bere aurrekontuak onartzen ditu eta Eusko Jaurlaritzaren ekintzak bultzatzen eta kontrolatzen ditu. [...]

26. artikulua

1. Eusko Legebiltzarra osatuko duten ordezkariak kopuru berean hautatuko dira Herrialde Historiko bakoitzetik, bozketa orokor, aske, zuzeneko eta sekretu bidez.
2. Hauteskundeen barrutia Herrialde Historikoari berari dagokiona da. [...]
4. Eusko Legebiltzarra lau urtez behin hautatuko da. [...]

Bigarren Kapitulua
(Eusko Jaurlaritza eta Lehendakaria)

29. artikulua
Eusko Jaurlaritza da Euskadiko funtzio exekutibo eta administratiboak bere eskuetan dituen organo kolegiatua.

30. artikulua
Jaurlaritzaren atribuzioak eta bere antolaketa, Lehendakari batengan eta Kontseilariengan oinarrituko dena [...] Legebiltzarrak erregulatuko ditu. [...]

III. Titulua
(Ogasuna eta Ondarea)
[...]

41. artikulua
1. Estatu eta Euskadiren arteko zerga mailako harremanak, antzinako erara, Kontzertu Ekonomiko eta Konbenio sistemaz erregulatuko dira.

IV. Titulua
(Estatutuaren erreforma)
[...]

Xedapen gehigarria
Estatutu honetan finkatu den erregimen autonomikoaren onarpenak ez du esan nahi, Euskal Herriari herri gisa historian barrena dagozkiokeen eskubideei uko egiten zaienik, ordenamendu juridikoak erabakitzen duenaren arabera gaurkotu daitezkeelarik.

[...]

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herritarrek onetsia 1979ko urriaren 25eko erreferendumean, eta Lege Organiko gisa indarrean jarria 1979ko abenduaren 18an.[1]

[1] [Iturria: 1979ko Estatutuaren euskarazko bertsio ofiziala. 1979ko testu hori zertxobait orraztu dugu Euskaltzaindiaren azken arauetara egokitzeko, esaldi aldrebesen bat artezteko eta ordutik hona finkatu diren zenbait izen ofizial jasotzeko: *Komunitate Autonomo* > *Autonomia Erkidego*, *estatutoa* > *estatutua*, *Euskal Biltzarra* > *Eusko Legebiltzarra, Euskal Gobernu* > *Eusko Jaurlaritza, konpetentzia* > *eskumen*, *agindu* > *xedapen*, etab. 1979ko testuaren euskarazko bertsioan *Euskadi* / *Euskal Herria* izenak aski modu nahasian tartekatzen direnez, hemen *Euskadi* forma finkatu dugu gaztelaniazko *País Vasco*-ren ohiko ordain gisa (jatorrizko testuan hainbatetan egiten den bezala), baina *Euskal Herria* eta *Euskadi*, biak, utzi ditugu lehen eta laugarren artikuluetan, testu ofizialean egiten den bezala, bertan nahitara bereizten baitira. Orobat xedapen gehigarrian *Euskal Herria* utzi dugu (jatorrizkoan bezala), ez baitago *País Vasco*-ren ordain gisa, *Pueblo Vasco*-ren pareko moduan baino].